

# ADITZ JOKATUGABEA ETA *ETA* ENKLITIKOA

Karmele Rotaetxe

Linguistika Orokorraren Katedraduna Arloaren sortzailea  
UPV/EHU

## Abstract

*In this article, an analysis and description is carried out of the non-finite verbal Basque forms compatible with the clitic eta. The description shows prosodic and semantic features together with grammatical ones (morphological and syntactic). In Basque grammars, there are three forms: the so-called “present participle” (represented by -T(Z)EN), that is, -T(Z)EN ETA (described in Part 1), the so-called “aditz-oina”, that is, ADITZ-OINA ETA (described in Part 2) and, finally, the perfect participle, that is, -TU ETA (according with the normal representation in our grammar). The analysis of this last one is by far the most interesting. We prove that -TU ETA constitutes a single word (Part 3) in which ETA has been entirely agglutinated and functions as a suffixe (amaituta, not \*\*amaitueta, for example). Because of its homophony, this form covers two grammatical units: a gerund (Part 4) and a past participle (Part 5). The gerund is used in two different structures: the absolute constructions and the conjunct construction. As for the past participle, we find it in the so-called Periphrase Structures (with ergative verbs as well as absolutive ones) and in two different structures related to the opposition of diathesis: the passive voice and the antipassive one. Our research shows that both share a basic feature that has never been pointed out in previous studies.*

Lan honek aztertu behar duen aditz jokatugabea hiru formatan ager daiteke: -T(Z)EN, ADITZ-OINA eta -TU forma, hau da, partizipio burutua (cf. EGLU II<sup>1</sup>: 113-17). Hiru posibilitate hauen deskripzioa ordena honetan egingo da: -T(Z)EN forma, 1. atalean, ADITZ-OINA, 2. atalean eta hirugarren posibilitatea, -TU forma, 3. atalean. Hirugarren atal horretan, frogatzen da aditz jokatugabe mota horrek eta enklitikoak hitz bakarra osatzen dutela. Deskripzioari dagokionez, unitate hau da interesgarriena.

---

<sup>1</sup> Aipamenak egiteko, erabilitako laburdurak: Corpus = gure Bibliografiako Euskaltzaindia 1984 eta EGLU II, Euskaltzaindia 1987. Bestalde, -T(Z)EN idazten dugu *-t(z)en*-dun forma izendatzeko eta -TU idazten dugu *-tu*-dun forma (edo partizipio burutuaren besteren bat) izendatzeko.

Azaltzen dituen propietate eta ezaugarrien arabera, izan daiteke Gerundioa (4. atala) eta Partizipio Iragana (5. Atala). Gerundioa egitura mota bitan ageri da, hots, Eraikuntza absolutuan eta Eraikuntza konjuntuan. Partizipio iraganari dagokionez, Perifrasia mota bitan sartzen da, alde batetik, eta, bestetik, Diatesi-oposizioarekin lotutako egitura mota bitan: Pasiboa eta Antipasiboa, alegia. Azken egitura bi hauen arteko erlazio jakingarriak ematen direla justifikatzen dugu. Bestalde, euskal esparru osoaren barruan, -TUTA unitate honek baliokide du -TU(R)IK unitatea, banaketa dialektalaren arabera, azken hau ekialdekoa izanik, gehien bat.

### 1. -T(Z)EN + Enklitiko

- (1) *ohartzen-eta* ez duzula zuhaurek egiten ahal, zertako ez duzu lagunik hartzen “du moment que vous constatez l'impossibilité de le faire vous-même, pourquoi ne prenez-vous pas de collaborateur” (Lafitte 1944: 216)
- (2) *hoinbertze erraiten-eta*, uste duzu mugitzen den “on a beau le lui dire, croyez-vous qu'il bouge?” (Lafitte 1944: 216)

Forma hauek Iparraldean erabiltzen dira. Ahoskerari dagokionez, -T(Z)EN eta enklitikoaren artean, barruko etenaldi erlatiboa (ez absolutua) ez da ezina, hiztunak egin dezake, gehienetan labur egiten duen arren. ETA elementuak perpaus menderatua sartzen du esaldi konplexuan. Esanguraren aldetik, perpaus menderatu honek aditz nagusiak adierazitako egintzari edo gertakariari zirkunstantzia bat eransten dio. Esaterako, (1) adibidean, zirkunstantzia hori baldintzazkoa dela dirudi. Zeren, esangurari dagokionez, beste esaldi hau baliokidea dela pentsa daiteke:

- (1') *Ohartzen bazara* ez duzula zuhaurek egiten ahal, zertako ez duzu lagunik hartzen?

Bigarren adibideak, ostera, kontzesio-kutsua du edo, ordezkia-frogaren arabera:

- (2') *hoinbertze erraiten ere*, uste duzu mugitzen den

### 2. -ADITZOINA + Enklitiko

- (3) *Urguluak zerura abia-eta*, io zegin ifernura (A. Oihenart, *Les Proverbes basques*, Corpus)
- (4) *Bazkal-eta* etxean geldi zaitte (Lafitte 1944: 290)

Aditzoina ager daiteke, inoiz, Iparraldeko testuetan. Hemen ere esangura denborazkoa da eta gertakari biak oso hurbil aurkezten ditu hiztunak, aditzoinekoa burutua izan behar bada ere. Aurreko kasuan legez, hemen ere mendeko perpausak perpaus nagusiaren gertakariari edo prozesuari zirkunstantzia bat dakarkio, esanguraren aldetik aldakorra dena. Esaterako, (3) adibidean, kausa/denbora adierazten du mendekoak, ordezkotza hauxe posible delarik:

- (3') *Urguluak zerura abiatu zelako*, io zegin ifernura

baina beste ordezkotza honek ere posible dirudi:

- (3'') *Urguluak zerura abiatu zenean*, io zegin ifernura

Bestalde, <TZEN> Enklitiko-dun perpausak eta ADITZOINA-koak menderatuak dira, bai gramatikaren aldetik, bai eta semantikaren aldetik.

### 3. -TU + Enklitikoak

- (5) Jon *itzulita*, alde egin genuen hortik  
 (6) Jon-en berbaldia *entzunda*, ez dago hemen geratzeko arrazoirik.

3.1. Azterketa fonikoa: *Itzulita*, *entzunda* eta antzeko formetan ez dago enklitikotasunik, osorik betetako eransketa baino; ETA-ren *e*-ren aferesia derrigorrezkoa delarik (cf. *itzulita* baina \*\**itzulieta*, adib.) sistematikoa da. Eransketa horrek fenomeno batzuk eragin ditu: -TA elementua, gramatikalizazio-prozesu baten ostean, (1) edo (3) adibideetako ETA baino gramatikalagoa da, gramatika-eskalari dagokionez (cf. Hopper & Thompson 1980, Rotaetxe 2004, adibidez). Hain zuzen ere, *itzulita* eta antzeko formetan atzizki gramatikala besterik ez da; beste modu batera esanda, librea ez den morfema da. Jatorrizko formetan (*itzuli-eta*, *egin-eta*...) bereiz zitezkeen osagaiak, oraingo formetan (*itzulita*, *eginda*, adb.), ezin dira banandu, berba bakarra eratzen dutelako. Esan gabe doa -TU eta -TA-ren artean ez dagoela etenaldi posiblerik baizik eta ukipen osoa eta honetatik dator, hizkuntza eranskarietan jazotzen denez, zenbait aldaketa foniko. Gure kasuan, arau morfonologiko bik aldaketa horien berri ematen dute, era honetan:

- *asimilazio progresiboa*: TU-ren azken soinua [n] edo [l] denean, sonante hauek ozen ezaugarria ematen diote ukipen zuzenean dagoen -taren [t] soinuari, [d] ozena gauzatzeko: *hil+ta...*→*hilda*, *egin+ta* → *eginda*, *ereinda*, etab.
- bigarren araua *bokal armonia*-koa da. Honen arabera, -ta-ren [a] bokala [e] errealizatzen da edo gauzatzen da aurreko silabaren bokala itxia denean, hau da, [i] zein [u]. *Bokal-armonia* deitzen da, ezaguna denez, [e] bokala [a] bokala baino hobeto hurbiltzen zaielako delako bokal itxiei (berez itxiagoa da-ta).

Jakin badakigu bokal armonia fenomeno hau ez dela orokorra euskararen esparruan. Barietate dialektal batzuetan ageri da (Mendebaldean, adibidez) eta beste batzuetan ez. Gainera ahoz barietatea mugatzen da sarritan; izan ere, kontsultatutako idazleek ez dute grafian jazo-eta. Bestalde, arau mota honen aplikazioarako baldintza bi bete behar dira: silabak ukipenean egoteko beharra, alde batetik eta, bestetik, [i] zein [u] bokal itxia duen silaba irekia izatea (*etorrite*, *aspertute*, *kendute* baina *eginda*, *entzunda*...) zenbait mintzairatan, silaba itxia denean ere araua bete arren.<sup>2</sup>

<sup>2</sup> Edozein modutan, arau hauek morfonologikoak dira, fonologia-maila eta morfologiakoa, biak, inplikaturak daudelako. Hain zuzen ere, morfema bat eranstea (-ta, gure kasuan), orduan eta orduan bakarrik, ematen dira aipatutako fenomenoak. Eta eransketatik sortzen den unitate berriaren mugak seinalatzen dituzte. Horregatik, zenbait mintzairatan erabiltzen diren *etorri de*, *heldu de* eta antzekoak (laguntzaileko -e, -a komunaren orde) ez dira bokal armoniako fenomenoak, eransketarik ez dagoelako: aditz sintagma horiek unitate aske bi dituzte eta ageri den egokitzea fonetika mailari hutsik dago-kio, ziur asko.

3.2. Unitate honen klase gramatikala edo kategoriari dagokionez, ezaugarri morfologikoen frogatzen dute ez dela partizipioaren klasekoa. Esaterako, partizipioak ahalmena du artikulua hartzeko (*etorri-a; egin-a*, adb.) eta numero oposizioa du: *etorri-a-k, egin-a-k*, etab.). -TUTA unitateak, ordea, aldaezina delarik, ezin du ez artikulurik onartu ez eta pluralik adierazi.

3.3. Sintaxiaren ezaugarriak eta propietateak ere desberdinak dira: partizipioa zenbait morfemarekin konbinatzen den bitartean jokabideko aldi konposatuak emateko (*etorri-ko da; joan-go banintz*, etab.) -TUTA formarekin ezinezkoa da hori (*\*etorri-ta-ko da; \*joanda-go banintz*, etab.); beraz, oso distribuzio ezberdina dute unitate batak eta besteak. Gainera, partizipioa erabil daiteke agintera adierazteko, batez ere ahozko barietateetan (*Etorri hona! Ekarri hori!* eta antzekoak), -TUTA formak ez du halako posibilitaterik (*\*Etorri-ta hona!, \*Ekarri-ta hori!* etab.). Beste diferentzia bat aipatu behar da: partizipioak izen-lagunak diren neurrian, izenaren atzizkiak onar ditzake (*ume etorri-e-k* egingo dute; *neska etorri-a-ri* emango diot, etab.) -TUTA formak ezin du. Azkenez, partizipioa atributo/predikatua izan daitekeen bitartean, (7), -TUTA formak ezin du funtzio hori bete (8):

(7) Orma *pintatua* zure aldamenekoa da.

(8) \*Orma *pintatuta* zure aldamenekoa da

Laburbilduz, bere osagaia izandako partizipioarekin parekatuz, -TUTAREN ezaugarriak hauek dira:

- berba bakarra da,
- aldaezina da
- distribuzio desberdinetakoa
- ezin du aginterarik adierazi
- ezin du atributo/predikatua izan

Esangurari dagokionez, adibideek azaltzen dute -TUTA forma erabiltzen dela bukatua den prozesu batetik datorren/ataratzen den egoera burutua seinatzeko. Adibidez, goiko (5) eta (6) esaldietan (hemen (5') eta (6')) zebakipean errepikatua (*itzulita/entzunda* formak ezin dira trukatu gertakari progresiboa adierazten duten formekin:

(5') \*Jon *itzulita ari da...* hortik

(6') \*Jonen berbaldia *entzuten dabil...* geratzeko arrazoirik.

Azkenez, aipatu behar da -TUTA formak homofonia fenomenoak aurkezten duela-ta, klase gramatikal bi hauei, Gerundioa eta Partizipio Iragana, dagokie, ondoko lerrook frogatuko dutenez.

#### 4. – Gerundioa

Jokatubariko aditz mota honek aditz-ezaugarri garrantzitsuak ditu. Esaterako, perpausak eratzeko gauza da eta gerundiodun perpausak ditu euskarak. Alde horretatik, partizipioa baino “aditzagoa” da gerundioa. Bere perpausetan, gerundioak izaten ditu subjektua (5), osagarri zuzena (6), (9) eta zeharkakoa/datiboa (10), erlazio mota hauek kontrolatzen dituelarik:

- (9) *Jonek txostena irakurri duela ikusita*, alde egingo dugu.  
 (10) *Jonek bere txostena Ane-ri emanda (gero)*, ez dago hemen geratzeko arrazoirik.

Osagarriak zirkunstantzialak ere izan daitezke: leku-denborazkoa, sozietatiboa, instrumentala... segidan ikusten denez:

*Jon etxetik etorrira; etxera joanda; oinez etorrira; amarekin joanda...*

Delako zirkunstantzia denborazkoa denean, gerundioak darama, sarritan, bere eskuian hautazkoa den *gero* adberbioa; hau elementu expletiboa da eta denborazko erlazio semantikoa indartu besterik ez du egiten.

Hitz batez, jokatugabea izanez gero, ez dauka pertsona zein numero-oposiziorik, ez eta aldiak eratzeko eta adierazteko ahalmenik. Baina, bere perpausaren barruko erlazioak kontrolatzen ditu, gorago esan denez.

Beste alde batetik, gerundiodun perpausak esaldi konplexu baten parte izaten dira eta zein lotura mota eratzen duten zehaztu beharko da. Kontuan hartzekoa da, gainera, esamolde edo esakuntza batzuetan (gehienetan izenburuak/deiturak direnak) gerundiodun perpausa libre gisa ager daitekeela (cf. EGLU-n, *izenak gobernatuta*, *aditzak gobernatuta*, adibidez). Azkenez, aipatu behar da gerundiodun egitura bi daudela, ondoan ikusiko denez.

#### 4.1. Eraikuntza absolutuak:

- (11) Egun hori heldutakoan, *meza nagusia entzunda*, inguruetako ahaide, adiskide eta bazkarraldoakaz mahaian jarten diranean, eragin mutilak jan-edanari (D. Aguirre 2004: 91).  
 (12) Hamar hamarretan, kanpaiak dilin-dolon atsegintsuan eta, zotz-hegalariak, *goietara igonda*, tipi-tapaka hasten diranean, urtetan dabe abade guztiak baselizaruntz urre-zidarrezko... (D. Aguirre 2004: 93).  
 (13) Untzu bat oraitiño (*sic*) galdu egin zan, untzikoak, *batto ezik, onik urtenda* (Erkiaga, *Arranegi*, Corpus).  
 (14) Katamixarrek, *guda amaituta*, asi yakezan jarraika (F. Bilbao, *Ipuin barreka*, Corpus).

Egitura hauek hizkuntza-barrietate idatzian ez dira hain sarritan ageri, barrietate mintzatuan arruntak izan arren (5), (6), (9) eta mintzaira mota landua ere (15) denean:

- (15) Gutxienez, hiru lagun hil dira Bagdaden, *bonba kamioi bat lehertuta* (...) (Asier Larrinaga Larrazabal —EITB Hizkuntza— in Azpeitiko Euskara Patronatua, *erabili.com*, 07.04.30).

Ohar batzuk egin daitezke:

- a) funtsezko baldintza */?sine qua non* hau dugu: gerundioaren subjektua eta perpaus nagusiarena ezin izan daitezke erreferentziakideak (cf. Feuillet 2006: 492).  
 b) gerundiodun perpausaren barnean, ageri dira funtsezkoak diren erlazio gramatikalak. Gorago esan denez, gerundioak kontrolatzen ditu bere subjektua

eta mota ezberdinetako osagarriak. Gainera, eduki dezake bere aditz-laguna (cf. (13) *onik urtenda*). Bestalde, eraikuntza absolutuan, hitz ordena ez da libre, finkatua baino: gerundioa azkenengo tokian izan behar. Gerundioaren aditz-motari buruz, gaztelerarako esanda dago (De Miguel 1992, apud Hernanz-Suñer 1999: 39.3.1.) aditza izan behar dela iragankorra [+tr.] edo ez-akusatiboa. Ohar honek balio du ingelesez, frantsesez eta euskaraz ere bai, adibideen arabera.

- c) esaldi konplexu barruko erlazioei dagokienez, zenbait bereizgarri aipatu behar: eraikuntza absolutuaren eta perpaus nagusiaren artean ez dago erlazio gramatikalik, ez eta menderakuntzako marka morfoloikorik. Izan ere, eraikuntza absolutua aditz nagusiaren aktantziatik at dago, aditz horren balentziarik saturatzen ez duelako. Beste modu batera esanda, predikatu nagusiaren balio argumentaletik at dago (honetaz Hernanz-Suñer, op. cit.). Jakina, lotura anaforikorik ere ez dago eta, gramatika-ikuspuntutik, eraikuntza absolutua autonomoa izango balitz legez funtzionatzen du esaldi barnean.
- d) maila fonologikoan ere libertate hori nabari da. Entonazio kurba eraikuntza absolutuaren ezkerrean eta eskuinean ebagi egiten da, tarte horretan melodia ezberdina eskeintzeko. Hori dela-eta, etenen artean ahoskatzen da eta, grafari dagokionez, komen artean agertzen da, esaldiaren erdian kokatuta dagoenean. Hasieran dagoenean, ez da esan beharrik bere ezkerreko etena emanda dagoela beti eta amaieran dagoenean, eskuineko etena, noski. Kasu denetan, kurba motak eta etenek eraikuntza absolutua bereizten dute esaldi konplexuaren barnetik.
- e) askatasun gramatikal eta fonologiko hauek ez dute esan gura lotura semantikorik ez dagoenik, lotura ahula bada ere. Eraikuntza absolutuak azalpen mota bat besterik ez dakarkio predikatu nagusiaren adierari, sarritan beharrezkoa ez dena. Ondorioz, eraikuntza absolutua esalditik ken daiteke, galera semantiko handirik barik. Izan ere, erantsitako esangura azalpen hutsa izanik, balio adberbiala edo dute.
- Balio ezberdinen artean, hauek dira aipatzekoak: kausazkoa (15), denborazkoa (12), kausa-denborazkoa (5), (11), (14), moduzkoa (13). Kontzesio-kutsua ere agertzen da inoiz baina, orduan, perpausak *ere* partikula eduki behar du. Sarritan gaitza da finkatzea balio konkretu bat, testuinguru-lexikoaren pean dagoelako.
- f) esaldi barnean, eraikuntza absolutuaren kokagune arrunta predikatu nagusiaren ezkerrean dago, goragoko (11), (12) edo (14) adibideek erakusten dutenez. Honek ez du esan nahi delako ordena arrunta trukatzek agramatikaltasunik dakarrenik: esaterako, (10) adibideak *Jonek hitzaldia amaituta, alde egin genuen*, duen ordenaren orde, beste hau *Alde egin genuen, hitzaldia amaituta*, gutziz onargarri litzateke (cf. (13), (15)).
- g) erabili behar diren aditz-aspektuari eta aldiari buruz, ez dirudi murrizketarik denik, esaldi-barnean. Gorago esanenez, gerundioak burutua den prozesu batetik datorren egoera adierazten du. Baina [+burutu] aspektu horrek ez dio baldintzarik inposatzen aditz nagusiaren formari, adibideek azaltzen dutenaren arabera. Jakina, [+burutu] diren prozesuak oso maiz iraganean jazo dira, gerundiodun perpausa aurrekotasun-erlazioan dago edo, beste era batera

esanda, aditz nagusiko prozesua ondokotasun-erlazioan, adibideek azaldu dutenez.

**4.2. Eraikuntza konjuntuak** (“conjunct construction” / “construction conjointe” / “construcción conjunta”...) cf. Villasante 1976: 206; RAE 1975: 488-492; Solà et al. 2002, 20.2.2.: 3043.

- (16) *Itzketa onetan luzaro Kafarnau'en jardunda*, Jesus bere apostolu eta ikasleekin Jerusalem'erunz abiatu zan (F.I. Lardizabal, *Testamento Zarr.Berr. Condaira*, Corpus).
- (17) Lengo egun baten *berak buruz ikasita*, esan euskun ipuin txito eder abade batek imini ebana berba neurtu ta soiñutuaz (Moguel 1966: 61).
- (18) *Ameriketara joanda*, nori kanta bear zizkionat ene biotzeko kezka, naigabe ta pozaldiak? (Y. Etxaide, *Joanak-joan*, Corpus).
- (19) ...gizon bat etorri zen osaba izeben etxera, non bainengoen udazkeneko egun batzuk pasatzen eta (...) sartu eta hitzegiten hasi zen instantera (...) zutik, *bizkarra orman jarrita* (Atxaga 1988: 123).
- (20) Gu hemen gagoz, *estu ibilita bada be* (Aguirre 2004: 71).
- (21) Arriarte baten geratu da, *maillatu-maillatu eginda* (M. Zarate, *Ipuin Antzeko*, 106, apud Arejita 1984: 300)
- (22) Eta sarri (ikusten dira) ontzi andiak be *euren belak edo aize-oyalak zabal-duta*, ichasoa zear doazanak (Etxeita, *Josecho*, 28, apud Arejita 1984: 300)

Esaldi mota hauetan, gerundiodun perpausa eta perpaus nagusiaren artean bado lotura anaforikoa predikatuaren subjektuarekin edo osagarri zuzenarekin. Lehenengo kasuan, eraikuntza konjuntuak subjektuari azalpen bat dakarkio eta delako azalpena izan daiteke moduzkoa (19) = *gizon bat... bizkarra jarrita* edo (21) eta (22) esaldietan. Halako kasuetan, perpaus bien subjektua erreferentziakidea da, ikusten denez. Bestalde, (20) adibidean, azalpenak kontzesio kutsua dakarkio subjektuari (gu), kutsu hori *bada be* elementuari zor bazaio ere. Azalpena denborazkoa da (16) eta (18) adibideetan eta moduzkoa (17) esaldian. Baina, zaila da gehiago zehaztea: zirkunstantzia mota testuinguruaren pean dago eta, dena dela, hizkuntzetan zehar anbiguitate /zalantzagarritasun graduren bat izatea arrunta da.

Bestalde eta aurreratu denez, lotura anaforikoa osagarri zuzenarekin ere izan daiteke, honako adibideok azaltzen duten bezala:

- (22) Arranondotarrak (...) herrira begira daukie (...) Ama Maiaren (sic) irudi eder bat, *baseliza polit-politean ondo gordeta* (Aguirre 2004: 92).
- (23) Handik ordu batera edo ailegatu nintzen granjara (..) eta segiduan aitona ikusi nuen *silan eserita* (Atxaga 1988: 1121).
- (24) Bear bada egunen baten Elesha onetara *ilda* ecarrico zaituela (Añibarro, *Escu Liburua*, 13, apud Arejita 1984: 300).

Esaldi hauetan, *gordeta* (22) *irudia*-ri dagokio eta *eserita* (23) *aitona*-ri, *aitona* eta *irudia* osagarri zuzenak izanik. Azken adibidean, *ilda* forma aditz nagusiaren 2. pertsonako *z(ai)*- morfemari dagokio, hau da osagarri zuzena hemen ere. Adibideek erakusten dute aditz nagusiaren subjektuari dagokionean eraikuntza konjuntuak ez duela subjekturik azaltzen, erreferentziakidetasunagatik, jakina. Eta osagarri zuzenari

dagokionean, arrazoi beragatik, antzeko ezabatzea jazotzen dela. Bestalde, konjuntuek absolutuek baino libertate gutxiago dute eta predikatu nagusiari dagokion adberbio baten itxura edo balioa aurkezten dute. Argi dago autonomia-neurria desberdina dela eraikuntza mota batean eta bestean.

Edozein modutan, eraikuntza mota bietako *-ta*-dun formek baliokide dituzte *-(r)ik* morfemaz hornitutako formak. Esate baterako, azkenengo (26) esaldia horrela adierazi daiteke, galera semantiko barik:

(24') Bear bada, egunen baten, Elesha onetara *ilic* ecarrico zaituela.

## 5. -TUTA, Partizipio Iragana

Gorago aurreratu da homofoniagatik *-TUA* forma klase gramatikal biri dagokiela, gerundioa eta orain aztergai dugunari. Gerundioak dituen aditz-propietateak ez ditu honek eta Partizipio Iragana dela esango dugu (cf. EGLU, II, 476-478). Esanguraren aldetik, partizipio mota honek eta gerundioak ez dute diferentziarik: batak zein besteak seinalatzen dute, funtsean, prozesu burutu batetik sortzen den egoera burutua, gorago esanda dagoena errepikatuz. Gramatika-mailan, ordea, badago alderik. Gerundioak aditz-propietateak dituen bitartean, partizipio iraganak ez du ahalmenik perpausarik sortzeko; horregatik, agian, beste aditz bat (jokatua, gainera) behar du bere perpausuan. Gerundioarekin banatzen du aldaezina izatea eta predikatu gisa erabiltzeko ezintasuna. Bistan da propietate komun hauek ematen dietela, bai gerundioari, bai oraingo klase honi, adberbio/aditz lagunarekiko antza. Baina, argi dago biek elkarrengandik bereizten direla.

Partizipio iragana egitura ezberdinetan aurkitzen da: perifrasiak deitutakoetan (5.1.), eta diatesia-oposizioarekin lotuta dauden egituretan (5.2), hauen artean azpi-atal bitan sailkatuko dira mota ezberdin bi: pasibotasuna (5.2.1) eta antipasibotasuna (5.2.3). Azken bi hauek ere perifrasi bidez gauzatzen dira, goiko ataleko egiturak bezala. Hauetan, baina, perifrasiatako elementu biak ordena jakin batean ageri behar dira: partizipio iragana gehi aditz jokatua. Aditz jokatuei *laguntzaileak* deitu izan zaie (cf. EGLU, II, 176-sq.).

### 5.1. Perifrasiak

Laguntzailea iragangaitza ala iragankorra izan, horren arabera, mota bi bereizten dira, honako hauek eta geroago ikusiko direnak:

#### 5.1.1. Laguntzaile iragangaitzak (-tr.):

- (25) Oinez *etorrita zaudete* eta atsedenek ez duzue hartuko?
- (26) Ez dakit atea *giltzatuta dagoen* ala ez (Lertxundi 1984: 65).
- (27) Lanean hasterako *nekatuta al zinen?* (EGLU II: 476).

Laguntzaileari buruz, *egon* da gehien erabiltzen dena eta (bizkaieraz, batez ere) *ibili*. *-TA + izan* "aukera oso gutxi erabilia da eta gipuzkeraz bakarrik" (EGLU II: 476).



### 5.1.2. *Laguntzaile Iragankorra [+tr.]: eduki/ lukan*

- (28) Eta ni zoratuta eta *gogait eginda naukate* (Emiliano, *Euskal musikolari bikaiñak*, Corpus).  
 (29) Athletic talderik onentzat *jota daukate* bilbotarrek (EGLU II: 478).  
 (30) *Ahaztuta neukan*, zeharo, baina horrelakoa zen (Atxaga 1985: 51).  
 (31) Tobar *esanda eukan* Antoni Marik (Agustin Zubikarai, *Bale denporak*, Corpus)

Laguntzaile-aukerari dagokionez, mendebaldean *eduki* eta *ukan* erabiltzen dira eta *ukan* ekialdean, *grosso modo*.

Gorago esan dugunez, bestalde, perifrasi hauetako partizipio iraganak prozesu burutu batetik ataritzen den egoera burutua adierazten du eta aldaezina da. Laguntzaile mota biek, ostera, flexio osoa dute (pertsona, numeroa, tempusa eta modua).

Azpi-marratzekoa da, gainera, perifrasi hauen ezaugarri garrantzitsu bat: partizipio iragana eta laguntzailea aktantzia berekoak izan behar dira, perifrasi mota ba-koitzean; beste modu batera esanda, laguntzailea iragangaitza denean, partizipio iraganaren aditza ere iragangaitza izan behar da; eta, iragankorra denean, partizipio iraganaren aditza ere iragankorra da. Hori dela-eta, koherentzia edo adostasun hau apurtzen duten esaldiak agramatikalak dira, segidan ikusten denez:

(25\*) \*Oinez *etorrita duzue* eta...

non goiko (28) manipulatu dugun, edo

(32) \*Tobar *esanda egoan* Antoni Marik

goiko (31) manipulatzeko duena; izan ere, *esanda egoan* ezinezkoa da: bere subjektua ergatibodun sintagma izanez gero, sasi-perifrasia dugu.

## 5.2. Diatesi-Oposizioa

Baina delako adostasuna/koherentzia ez da ematen orain aztertu behar diren beste perpaus mota bitan: hauetan, partizipio iraganeko aditza iragankorra da [+tr.] eta laguntzailea iragangaitza, [-tr.]. Bata (Pasibotasuna) eta bestea (Antipasibotasuna) diatesi-oposizioarekin lotuta daude.

Diatesia aditza eta perpausaren aktanteen arteko erlazioari dagokio. Erlazio motaren arabera, boza ez-markatua (aktiboa) dugu ala markatua, boz markaturik ezagunena pasiboa izanik; euskal pasibotasunaz 5.2.1 azpi-atalean arduratuko gara, 5.2.3 azpi-atalean, berriz, antipasibotasunaz.

### 5.2.1. *Pasiboa*

- (33) a. (Zuk) oparia ekarri duzu / Oparia zeuk ekarri duzu  
 b. Oparia (zeuk) ekarrita dago

(33 a.) esaldia aktiboa da eta (b.)koa pasiboa, biak baliokideak direlarik, adieraren aldetik. Gramatikaren aldetik ere, erlazionatuta daude: boz aktiboa delakoan eta “egintza” aditzekin, gramatika-hierarkiako lehenbiziko funtzioa duena —hau da, subjektua— eta semantika-hierarkiako lehenbiziko errola duena —hau da, egilea—

bat datoz izen-sintagma berean (cf. beste askoren artean, Lazard 1998). Europako hizkuntza denetan, Tipologia-ikerketen arabera. Adibidez,

(34) Anek gonarik politena erosi du

esaten denean, *Ane* da *erosi du*-ren subjektua eta erosketaren egilea. Baina, boz pasiboan, batasun hori apurtu egiten da eta subjektua izan zena “eretrogradatua” (Faarlund 1998) geratzen da, osagarri periferiko gisa funtzionatzeko. Pasiboko subjektua —hau da, aditzarekiko komuntadura eragiten duena— aktiboko osagarri zuzena da, jakina denez. Aktiboko subjektua perpaus pasiboaren aktantziatik at geratzen da (oraintxe esan dugunez, periferikoa da) eta ez du, noski, komuntadurarik eragiten, (33c) adibidearen agramatikaltasunak frogatzen duenez:

(33) c. Oparia (zuk) ekarrita zaude

Aktiboan zuen funtzioarekin konparatuta, “chômeur” dela esan daiteke. Gainera, pasibora pasatzean, aktiboko subjektuaren “eretrogradazio” fenomeno hori Europako hizkuntzetan jazotzen da (Fici Giusti 1998). Eta hizkuntza guzti horiek erakusten dute aktiboko subjektuaren eta egilearen arteko batasuna apurtu egiten dela pasiboan, pasiborako eredu homogeneorik ez izan arren. Aktiboko subjektuaren eretrogradazioa beste modu batean azal daiteke. Bere aipamena hautazkoa delarik, sarritan ezabatu egiten da, beheko idazleen adibideek erakusten dutenez.

Hain zuzen ere, gramatika-erregelak ez dute exigitzen (periferikoa baita) eta, agertzekotan, pragmatika-arauek agindutakoa izaten da, baldintza batzuen pean. Esaterako, mintzagaia izan ezinean, galdegaia izan behar da eta, ondorioz, aditzaren ezkerrean kokatu. Horregatik, (33c) adibideko izenordainaren forma indartsua edo intentsiboa izan behar da ((33d), goiko (33b) errepikatzen duena) eta baliokidea du (33e), jarraian ikusten denez:

(33) d. Oparia (zeuk) ekarrita dago

(33) e. (Zeuk) ekarrita dago oparia.

zeren, esaldi bi hauek *Zeinek ekarrita dago oparia* itaunaren erantzunak dira eta *zeuk*-ek ez du beste kokagunerik:

(33) f. \*(Zeuk) oparia ekarrita dago.

Ondorioz, komunikazio-eskakizunagatik, perpaus pasibo-subjektua (*oparia*, goiko adibidean) galdegaia denean, orduan ezin da aipatu osagarri periferikoa (*Zeuk*, goiko adibidean) gramatikaltasuna gorde gura izanez gero:

(33) g. Oparia ekarrita dago.

eta ez (\*33f).

Egoera hori (33g.)koa da ondoko idazleen adibideek azaltzen dutena:

(35) Bost minuturen barruan zero guztia odei baltzez *estalduta egoan* (Bilbao, *Ipuin Barreka*, Corpus).

(36) Jendea zurbil-zurbil eta *ikaratuta egoan* (Bilbao, *Ipuin Barreka*, Corpus).

Goiko (38) esaldiak erakusten du egilea [+biziduna] ez denean, bere marka instrumentalekoa izan daitekeela.

Egilea ezabatzea arrunta da hizkuntzetan; hain zuzen ere, perpaus pasiboen be-reizgarri bat egilea ixiltzea da. Horregatik, soziolinguistika-ikerketek erakutsi dute Administrazioeko hizkuntza-barietatean, adibidez, esamolde pasiboak ugaritzen di-rela: barietate horren helburua da, oso maiz, egilerik ez aipatzea, arduradun konkre-turik ez azaltzeko asmoz.

Bestalde, Europako hizkuntzetan arrunta ez den euskal pasiboen<sup>3</sup> ezaugarri be-rezi bat azpimarratu behar da: egilearen markazioa. Ikusi denez, markazio hori erga-tibokoa da-ta, harritzekoa dena da aditz iragankorraren subjektuaren marka egilea kodatzeko erabiltzea. Fenomeno hau ulertzeko, kontuan eduki behar da akusatiboan-aldeko joera handia izan arren, euskara eransketa-prozedura darabilen ergatibo-dun hizkuntza dela eta, ondorioz, bere morfologia oso pisu handikoa dela (Rotaetxe 2001, argitaratzeko).

### 5.2.2. *Passibo Inpertsionala*

Azkenez, perifrasi mota hau erabiltzen da prozesu inpertsionala adierazteko, pro-zesu horri dagokion izen sintagma ageri ez denean esaldian.

- (37) Itz batera bilduz gorabera: aiek gazte, ni zaar. *Ikusita dago*: lillura du auke-ratzeak... (Txillardegí, *Leturiaren egunkari ezkutua*, Corpus).  
 (38) Ori izango litzake bide bat emengoak euskeraz irakurtzera oitzeko; *ikusita dago*: erriak irabazteko... (J. San Martín, *Zirikadak*, Corpus).

*Ikusita dago* esakeraren legez *entzunda dago*, *esanda dago* eta antzekoak ditugu. Ez dute barietatez eta esamolde bezala funtzionatzen dute gaurko hizkuntzan.

### 5.2.3. *Antipasiboa*

- (39) Zer esan ezin *asmatuta ibili da* nirekin solasean aritu denean (Juan Luis Za-bala 1985: 342)  
 (40) Arte Eder Museoko azken erakusketa *ikusita nago*  
 (41) Bach-en musika *entzunda egon arren*, beti atsegin zaigu  
 (42) Gitxi *janda* eta asko *edanda nabil* (Arejita 1984: 298)  
 (43) Hamaika horrelako *ikusita gaude* gure bizitzan (EGLU, II: 476)  
 (44) Egon lasai, *meza entzunda zaude*  
 (45) Jon liburua *irakurrita dago*

Esaldi mota hauetan ere, partizipio iragana aditz iragankorrekoa da eta laguntzai-lea iragangaitza. Boz markatukoak dira. Adibidez, (39)ko aktiboa hau litzateke:

- (39') Zer esan ezin asmatu du.

Eta haien berezitasuna pasiboa eratzen eta justifikatzen duen fenomeno berean datza: aktiboko subjektuaren eta egilearen arteko batasunaren hausturan, alegia. Baina oraingo hauetan aktiboko subjektuak antipasibokoaren subjektua izaten

<sup>3</sup> Aztertutakoa ez da pasiboarentzako egitura bakarra: posibilitate bat baino gehiago ditu euskarak.

jarraitzen du, egilea izan ez arren. Egia esateko, antipasibo-perpausek ez dute egilerik, jasalea baino. Funtzioetatik aparte, esanda dago (Rebuschi 1982) perpaus mota hauetan absolutibo bi daudela, biak aktanteak direlarik. Hau ere bereizgarria da: boz aktiboan, aditz iragangaitzek ez dute edukitzen absolutibo kodatutako aktante bi.

Adibideen azterketak zera erakusten du: partizipioa aditz iragankorrekoa da eta laguntzailea iragangaitza (*egon/izan*, Mendebalde/Ekialdeko banaketa ezagunaren arabera, eta, bizkaieraz, *ibili* ere). Sintagma absolutibo bietako batek aditz-komunztadura eragiten du (NOR konkordantzia), subjektua delako. Bestea partizipioak adierazitako prozesuaren osagarri zuzena da: *meza* (44) edo *liburua* (45). Zenbait aditz motatan, aditzaren adiera osatzeko aditz-lagunak ager daitezke. Goiko adibideen arabera, pentsa liteke subjektua den izen sintagmaren erreferentzia [+biziduna] izan behar dela. Baina onargarriak eta gramatikalak diren beste esaldiek (46) baldintza hori beharrezkoa ez dela erakusten dute:

(46) Landare hauek mundua *ikusita daude*

Gorago esan denez, antipasiboko perpausetan, ez dago egilerik; subjektuak prozesua jasaten du-ta, jasalea da. Errol semantiko hori argi dago goiko adibideetako subjektuetan.

Elementuen ordena finkatua da: aditzaren aurrean, osagarri zuzena (edo aditz-laguna, cf. gorago) kokatzen da, galdegaiaren tokian, alegia. Eta honen ezkerrean, subjektua den izen sintagma. Ordena honen aldaketak perpaus agramatikala dakar:

(45') \*Liburua Jon irakurrita dago

Erabilerari buruz, orokorra da euskal-esparruan, laguntzailearen aukera (*egon/izan*) aldakorra delarik, ezaguna den banaketaren arabera. Baina, idazleen adibideetan antipasiboaren urritasunak esanguratsua dirudi eta adierazi dezake, agian, antipasiboa ahozko barietateari idatziari baino hobeto dagokiola. Eguneroko euskaran, oso bizia eta erabilia baita.

Laburbilduz, diatesi-oposizioari dagozkion egitura mota bi hauek erlazionatuta daude: pasiboan, aktiboko subjektuak bere subjektutasuna galtzen du, egile-errola gorde arren. Honen aipamena ez da, oso sarritan egiten. Antipasiboan, berriz, subjektua den izen-sintagmak bere funtzioa mantenduta, egiletasuna galtzen du, jasalea izateko. Beraz, neurri handi baten prozesu biak aurkakoak dira edo, zehatzago esateko, osagarriak. Eta osagarritasun hau euskararen ezaugarri berezietariko bat da, zalantza barik.

## Bibliografia

- Agirre Berezibar, J. M., 1991, *Euskal gramatika deskriptiboa*, Bilbo, Labayru.  
 Aguirre, D., 2004 [1906], *Kresala*, Bilbo, Labayru.  
 Arejita, A., 1984, *Euskal Joskera*, Bilbo: Labayru.  
 Atxaga, B., 1985, *Bi anai*, Donostia: Erein.  
 —, 1988, *Obabakoak*, Donostia: Erein.  
 Bosque, I. eta V. Demonte, 1999, *Gramática descriptiva de la lengua española (II)*, Madrid: Espasa Calpe.

- Euskaltzaindia, 1984, *OEH Testu Corpusa*, CD Rom, Bilbo.
- , 1987, *Euskal Gramatika Lehen Urratsak II* (EGLU II), Bilbo.
- Faarlund J., 1998, “Symétrie et dissymétrie des actants centraux”, in Feuillet (arg.), 147-192.
- Feuillet, J., 1998 (arg.), *Actance et Valence dans les langues de l'Europe* (Programme EURO-TYP, E.S.F.) Berlin, New York, Mouton de Gruyter.
- , 2006, *Introduction à la Typologie linguistique*, Paris: Honoré Champion.
- Fici-Giusti, F., 1998, “Diathèse et voix marquée dans les langues de l'Europe”, in Feuillet (arg.), 347-391.
- Hernanz, M. L. & A. Suñer, 1999, “La predicación: la predicación no copulativa”, in Bosque & Demonte, II: 39.3.1.
- Hopper P. J. & S. Thompson, 1980, “Transitivity in Grammar and Discourse”, *Lg* 56: 2, 251-299.
- Lafitte, P. Abbé, 1944, *Grammaire basque (Navarro-labourdin littéraire)*, Bayonne: Librairie Le livre.
- Lazard, G., 1998, “Définition des actants dans les langues européennes”, in Feuillet (arg.), 17-146.
- Lertxundi, A., 1984, *Goiko kale*, Donostia: Erein.
- Moguel de, J. A., 1966, *Peru Abarka*, Bilbo: La Gran Enciclopedia Vasca.
- RAE, 1974, *Esbozo para una nueva gramática de la lengua española*, Madrid: Espasa-Calpe.
- Rebuschi, G., 1982, *Structure de l'énoncé en basque*, Université de Nancy (Collection ERA).
- Rotaetxe, K., 2001, “Hacia una explicación de la ergatividad”, *ASJU* 34: 281-298.
- , 2004, “Eta enklitiko, sailkapen eskalarrean”, *FLV* 95: 115-139.
- (argitaratzeko), “Tendances évolutives en basque” Congrès International Identité culturelle de l'Europe, Paris: mai 2006.
- Solà J. et al. (dir.), 2002, *Gramàtica del català contemporani*, Barcelona: Empuriès.
- Villasante, L., 1976, *Sintaxis de la oración compuesta*, Oñati: Edit. Franciscana.
- Zabala, J. L., 1985, *Zigarrokin ziztrin baten azken keak*, Donostia: Erein.